

# Ikastolako Lehendakaria, berri emaile

Kontseilu Errektoreak egindako azken bileraren berri doakizue.

**EZOHIKO KONTSEILU ERREKTOREA**

**2026-06-18**

## 2026-2027RAKO ESZEDENTZIA ESKAERAK.

Datorren ikasturterako egon diren eszedentzia eskaerak aurkeztu eta aho batez onartu dira.

## ZUZENDARI NAGUSIEN EBALUAZIO PROZESUA.

Goretti Maturana Lehendakariak hitza hartu du Zuzendari Nagusien balorazio prozesuaren emaitzak partekatzeko. Egin dituzten elkarrizketa guztietan jasotakoa aztertu ondoren, bi zuzendari nagusien gaineko balorazioa oso positiboa dela adierazi du Lehendakariak. Bai Ikastola barruan, bai Ikastolen Elkartean eta baita Mondragoneko Ezagutza Dibisioan ere balorazioa positiboa izan dela gaineratu du. Indarguneen artean nabarmentzekoak dira erakundearekiko leialtasuna, konpromisoa eta inplikazioa, lidergo sendoa eta gertutasuna, besteak beste. Azterketaren emaitzak partekatu ondoren, Lehendakariak bi zuzendari nagusiek beste lau urtez zuzendaritza nagusian jarraitzea proposatu du. Kontseilu Errektoreak ontesi du Illart Azkarate Iturbe eta Mireia Muruamendiaraz Gutierrez 2026ko irailaren 1etik beste lau urtez Zuzendari Nagusi izendatzea, 2030eko abuztuaren 31ra arte, alegia.

## BESTERIK.

**-MONDRAGON.**

Ezagutza Dibisioaren ibilbide estrategikoan definitutako ardatzak lantzeko sortu diren lantaldeak proiektuak zehazten ari dira.

Os informo de la última reunión del Consejo Rector.

**CONSEJO RECTOR EXTRAORDINARIO**

**2026-06-18**

## SOLICITUDES DE EXCEDENCIA PARA EL CURSO 2026-2027.

Se han presentado y aprobado por unanimidad las solicitudes de excedencia para el próximo curso escolar.

## PROCESO DE EVALUACIÓN DE LA DIRECCIÓN GENERAL.

La Presidenta Goretti Maturana ha tomado la palabra para compartir los resultados del proceso de valoración de la Dirección General. Tras analizar la información recogida en todas las entrevistas realizadas, la presidenta ha señalado que la valoración sobre las dos personas al frente de la Dirección General es muy positiva. Ha añadido que la valoración ha sido favorable tanto dentro de la Ikastola como en Ikastolen Elkartea y en la División de Conocimiento de Mondragón. Entre los puntos fuertes destacan la lealtad, el compromiso y la implicación con la entidad, un liderazgo sólido y la cercanía, entre otros. Tras compartir los resultados del análisis, la presidenta ha propuesto que ambas personas continúen cuatro años más al frente de la Dirección General. El Consejo Rector ha ratificado el nombramiento de Illart Azkarate Iturbe y Mireia Muruamendiaraz Gutierrez en la Dirección General por un periodo de cuatro años, del 1 de septiembre de 2026 al 31 de agosto de 2030.

## OTROS.

**-MONDRAGON.**

Los equipos de trabajo creados para desarrollar los ejes definidos en la trayectoria estratégica de la División de Conocimiento están concretando sus proyectos.

| | |
|---|---|
| **-Kontseilu Soziala.**<br>Lankideei helarazten zaien komunikazio orrian informazioa zehatzagoa izateko eskaera egon da. Aurrerantzean Kontseilu Errektoreak erabiltzen duen formatua hartuko da erreferentzia bezala, gaiak ahal den neurrian sakonago azalduz.<br>**-Ikastolen Elkartea.**<br>Ekainaren 11an egin zen Ikastolan Elkarteko ezohiko Batzar Nagusia. Bertan, datozen lau urteetarako Ikastolen Elkarteko Artezkaritzarako Arizmendi Ikastolaren ordezkaritza onartu zen.<br>**-Unibertsitatera Sartzeko Proba (USaP).**<br>Azken urteetan USaP hautaproban Arizmendi Ikastolako ikasleek ateratako emaitzak eta batxilergoko espedienteko emaitzak aurkezten dira. 25-26 Ikasturtean ohiko deialdian aurkeztu diren gure ikasle guztiek gainditu dute Unibertsitatera Sartzeko Proba. | **-Consejo Social.**<br>Se ha solicitado una mayor precisión en la hoja de comunicación dirigida las-los profesionales. En adelante, se tomará como referencia el formato utilizado por el Consejo Rector, profundizando en los temas en la medida de lo posible.<br>**-Ikastolen Elkartea.**<br>El 11 de junio se celebró la Asamblea General extraordinaria de Ikastolen Elkartea. En ella se aprobó la representación de Arizmendi Ikastola en el Consejo Rector de Ikastolen Elkartea para los próximos cuatro años.<br>**-Prueba de Acceso a la Universidad (PAU).**<br>Se presentan los resultados obtenidos en las pruebas de acceso y en el expediente de bachillerato por parte del alumnado de Arizmendi Ikastola en los últimos años. En el curso 25-26, la totalidad del alumnado presentado en la convocatoria ordinaria ha superado la Prueba de Acceso a la Universidad. |

**KONTSEILU ERREKTOREA**

**2026-07-23**

**CONSEJO RECTOR**

**2026-07-23**

| | |
|---|---|
| **IRAUPEN JAKINEKO BAZKIDETZA.**<br><br>Giza Baliabideen saileko arduraduna den Miren Erdozia bilerara batu da Iraupen Jakineko Bazkidetzaren inguruan zuzendaritzak egindako hausnarketa eta proposamena azaltzeko. Ikastolako Zuzendaritzak Iraupen Jakineko Lan Bazkidearen figura ez erabiltzea proposatzen dio Kontseilu Errektoreari. Izan ere, estatutuetan jasoa eta beste kooperatiba batzuetan erabilia izan arren, ikastolak lan-bazkidetza iraupen mugagabeko lotura gisa ulertzen du eta ez behin-behineko tresna gisa. Momentu honetan figura hau ez erabiltzeko arrazoiak aztertu ondoren, Kontseilu Errektoreak, aho batez, momentuz Iraupen Jakineko Bazkide figura ez erabiltzea erabaki du. Arizmendi ikastolaren Estatutu Sozialek Iraupen Jakineko Bazkide figura erabiltzea ahalbidetzen dute, beraz, etorkizunean erabiltzeko erabakia hobetsi daitekeela gogorarazi da. | **CONDICIÓN DE SOCIA-O DE DURACIÓN DETERMINADA.**<br>Miren Erdozia, responsable del departamento de Recursos Humanos, ha explicado la reflexión y propuesta realizada por la dirección en relación a la condición de socia-o de duración determinada. La Dirección de la Ikastola propone al Consejo Rector no emplear la figura de socia-o de duración determinada. De hecho, aunque está recogido en los estatutos y se utiliza en otras cooperativas, la ikastola entiende la relación societaria de trabajo como un vínculo de duración indefinida y no como una herramienta provisional. Tras analizar los motivos para no utilizar esta figura en este momento, el Consejo Rector ha decidido por unanimidad no emplear, por ahora, la figura de la persona socia de duración determinada. Se recuerda que los Estatutos Sociales de Arizmendi Ikastola permiten utilizar la figura de la persona socia de duración determinada, por lo que en el futuro podría contemplarse su uso. |
| | |

**2025-2026 IKASTURTEKO HELBURUEN BETETZE MAILA.**

Ikastolako Zuzendari Nagusiek 2025-2026 Ikasturteko helburuen betetze mailaren azalpena eman dute. Plan Estrategikoko 3 erronkak oinarri hartuta Urteko Kudeaketa Planaren balorazio positiboa egin dute. BATU egitasmoan Ikaskuntza Ereduaren ebaluazioa egin da ikasturtean zehar. Balorazioa positiboa izan da.Ebaluazioan identifikatu diren hobetzekoak datorren ikasturteko helburuetan jasoko dira. 2. eta 3.erronkako helburu gehienak ere bete direla adierazi dute Zuzendari Nagusiek. 202627 ikasturteko helburuak iraileko Kontseilu Errektorean azalduko dituzte.

---

**2026-2027 IKASTURTERAKO ZERBITZUEN TARIFAK.**

Laurane Zubia Administrari Nagusiak egin du datorren ikasturterako tarifa proposamena. Tarifak zehazteko irizpideen eta aldaketak izan dituzten kontzeptuen azalpena eman du. Orohar, hornitzaileen igoerak aplikatu dira Ikastolan. Azalpen guztiak entzun eta zalantzak argitu ondoren, aho batez onartu da tarifen proposamena.

---

**BESTERIK.**

**-MONDRAGON.**

Ezagutza Dibisioaren ibilbide estrategikoan definitutako 3. ardatzak Ezagutza Dibisioaren Gobernantza Eredua du aztergai eta lanketa horretan akordio marko bat garatzea da asmoa. Idatzitako marko zirriborroa partekatu da errektorekideekin kontrastera eramateko.

**GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS DEL CURSO 2025-2026.**

Se ha presentado el grado de cumplimiento de los objetivos del curso 2025-2026. Tomando como base los 3 retos del Plan Estratégico, han realizado una valoración positiva del Plan de Gestión Anual. A lo largo del curso se ha realizado la evaluación del Modelo de Aprendizaje en el proyecto BATU, con una valoración positiva. Las mejoras identificadas en la evaluación se incluirán en los objetivos del próximo curso. Asimismo, la Dirección General ha señalado que se han cumplido la mayoría de los objetivos del 2º y 3er reto. Los objetivos del curso 2026-2027 se expondrán en el Consejo Rector de septiembre.

---

**TARIFAS DE LOS SERVICIOS PARA EL CURSO 2026-2027.**

Laurane Zubia, Administradora General, ha presentado la propuesta de tarifas para el próximo curso. Ha explicado los criterios para determinar las tarifas y los conceptos que han sufrido modificaciones. En general, se han aplicado las subidas de las empresas proveedoras. Tras escuchar todas las explicaciones y aclarar las dudas, se ha aprobado la propuesta de tarifas por unanimidad.

---

**OTROS.**

**-MONDRAGON.**

El 3er eje definido en la trayectoria estratégica de la División de Conocimiento analiza el Modelo de Gobernanza de la propia División y tiene como propósito desarrollar un marco de acuerdo. Se ha compartido con las personas del Consejo Rector el borrador redactado para su contraste.

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

**IRAILA : data nagusiak**

2026/09/17 Kontseilu Soziala

2026/010/24 Kontseilu Errektorea